



# Zientzia Kalean erakusketa ikusgai dago Abaltzisketan

*Egunerokoan erabiltzen edo kontsumitzen ditugun produktuen atzean dagoen zientzia azaltzen duen erakusketa antolatu dute Abaltzisketan bertako Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak*

**Abaltzisketa, 2025eko apirilak 29.** [Zientzia Kalean](#) erakusketa maiatzaren 12ra arte bisitatu daiteke Abaltzisketan, [Goibegiko begiralekuan](#). Hamaika infografiaz osatutako esposizioa da, euskaraz egina.

Herri ezberdinetan egon den erakusketa ibiltaria osatzen duten infografiatan **egunero inguruan ditugun, erabiltzen edo kontsumitzen ditugun produktuen azalpen zientifikoa eskaintzen da**. Adibidez, mugikorren, barra kodeen, txertoen, iturriko uraren eta sukaldeko plaken funtzionamendua erakusten da.

Horretaz gain, jogurten, garagardoaren, zuhaitzen hostoen, ogi barren edo fruituen konposizioaren inguruko azalpenak ere ezagutzeko aukera izango du bisitariak.

Erakusketara hurbiltzen direnek, irudiak ikusteaz gain, infografiak deskargatzeko aukera izango dute QR kode baten bidez. Erakusketa osatzen duten irudiak [esteka honetan](#) ikus daitezke.

*Zientzia Kalean* [Euskal Herriko Unibertsitatearen Kultura Zientifikoko Katedraren](#) eta [Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoaren](#) egitasmoa da. Azken hilabeteetan herri ezberdinetan jarri da erakusketa eta, besteak beste, Beasainen, Ordizian eta Lazkaon egon ondoren, Katedraren eta Abaltzisteko Udalaren eskutik heldu da Abaltzisketara.



## La exposición *Ciencia en la calle* ya se puede visitar en Abaltzisketa

*La Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco y el Ayuntamiento de Abaltzisketa organizan una exposición que explica el funcionamiento de elementos que utilizamos en el día a día*

**Abaltzisketa, 29 de abril de 2025.** La exposición [Ciencia en la calle](#) se puede visitar desde hoy hasta el próximo 12 de mayo en Abaltzisketa. La muestra, compuesta por once infografías en euskera, se encuentra en el [mirador de Goibegi](#).

La exposición itinerante ofrece una **explicación científica de productos cotidianos**. A través de estas infografías se explica, entre otras cosas, el funcionamiento de móviles, códigos de barras, vacunas, el agua del grifo o placas de cocina.

Además, el público visitante también podrá conocer de primera mano la composición de yogures, cerveza, hojas de árboles, barras de pan o frutas.

Quienes se acerquen a la muestra, además de ver las imágenes, podrán descargar las infografías a través de un código QR. Las imágenes que componen la exposición pueden verse en el siguiente [enlace](#).

*Ciencia en la calle* es un proyecto de la [Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU](#) y del [Museo de la Ciencia de la Universidad de Navarra](#). En los últimos meses, la exposición se ha instalado en diferentes localidades guipuzcoanas. Tras pasar por Beasain, Ordizia o Lazkao, llega a Abaltzisketa de la mano de la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU y el Ayuntamiento de Abaltzisketa.